



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA
SARTZEKO PROBAK

2011ko EKAINA

EUSKARA ETA LITERATURA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JUNIO 2011

LENGUA VASCA Y LITERATURA

Azterketa honek bi aukera ditu. Horietako bati erantzun behar diozu.

Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.

- *Lehenbizi TESTU bat duzu.*
- *Testu bakar honen gainean eraikiak daude bi aukerak: A eta B. Bietako bat egin behar duzu.*
- *Aukera bakoitzak hiru atal ditu:*
 - *Irakurmena*
 - *Ulermenari buruzko galderak (2 puntu)*
 - *Gaia eta laburpena (2 puntu)*
 - *Hizkuntzaren/literaturaren inguruan (1 puntu)*
 - *Idazlana (5 puntu)*



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA
SARTZEKO PROBAK

2011ko EKAINA

EUSKARA ETA LITERATURA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JUNIO 2011

LENGUA VASCA Y LITERATURA

Michael Jackson nire aurreiritziekin borrokan

Irratietako tertulialari guztiei galdetu diete gaur Michael Jacksoni buruz. Beste zeregin batzuetan aritzen naizen bitartean entzun ohi dut irratia, eta ez dut ziurtasun zehatzez gogoratzen nolakoak izan diren erantzunak, baina uste dut inor gutxi esan duela Michael Jacksonen musika oso gogokoa duenik, nahiz eta gehienek aitortu "artista handia" izan dela.

Michael Jacksonengandik eta haren lanetik bereziki urrun agertu dira tertulialari bi: Patxi Huarte eguerdiartean eta Koldo Aldabe iluntzean. A zer kasualitatea! Adiskideak izateaz gain, kulturalki oso gertukoak ditut biak.

Ataka horretan neuk zer erantzungo ote nukeen pentsatzen egon naiz, eta erabaki dut ez litzatekeela neure aldetik zintzoa izango esatea, besterik gabe, ez ditudala inoiz ez Michael Jackson eta ez bere musika gustuko izan. Uste dut honako hau erantzun beharko nukeela, gutxi gorabehera:

"Nire gustu musikalen formazioan neureganatutako aurreiritziek debekatu egin didate beti Michael Jacksonen musika ezagutzen saiatzea eta Michael Jacksonen musikarekin gozatzea. Beste batzuekin ere gertatu izan zait gauza bera: Queen, Boney M, Paul McCartney, Supertramp, Bee Gees, Elton John, Mark Knopfler (Dire Straitsen lehen bi diskoak aparte utzita)... Beste giro batean hazi banintz eta beste heziketa musikal bat izan banu, beharbada gustura entzungo nituzkeen eta nituzke horiek guztiak, eta are Betagarri ere. Baina zorte txarra izan dute nirekin, nire heziketa musikarekin eta nire aurreiritziekin. Oraintxe berean, aurreiritzi horiek airoso gainditzeko gauza izan den talde bakarra datorkit burura: Tequila".

Juan Luis Zabala, *Berria*.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA
SARTZEKO PROBAK

2011ko EKAINA

EUSKARA ETA LITERATURA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JUNIO 2011

LENGUA VASCA Y LITERATURA

A AUKERA

A.1.- IRAKURMENA

ULERMENA (2 puntu)

(Aukeratu erantzun egokiena. Aski duzu zenbakia eta letra jartzea: 1.a; 2.d;...)

1.- Zer entzun du irratian?

- a) Tertulialari guztien gustukoa dela Michael Jacksonen musika.
- b) Tertulialari gehienengogokoa dela Michael Jacksonen musika.
- c) Tertulialari gutxirigustatzen zaiola Michael Jacksonen musika.
- d) Tertulialari askorigustatzen zaiola Michael Jacksonen musika.

2.- Patxi Huarte eta Koldo Aldabe...

- a) Michael Jacksonen musikatik hurbil dira.
- b) Michael Jacksonen musika ez dute gertutik jarraitu.
- c) Michael Jacksonen musikaren jarraitzaileak dira.
- d) Michael Jacksonen musikari lotuak daude.

3.- Testua irakurrita, honako hau uler dezakegu....

- a) Egileak Michael Jackson bereziki gogoko duela, baina ez bere musika.
- b) Egileak Michael Jackson ez duela bereziki gogoko, baina bai bere musika.
- c) Egileak Michael Jackson eta bere musika miresten dituela.
- d) Egileak ez duela Michael Jackson gogoko, ez eta bere musika ere.

4.- Egileak dio Queen, Boney M, Paul McCartney, Supertramp ...

- a) Michael Jackson baino hobeak direla.
- b) Michael Jackson baino txarragoak direla.
- c) Michael Jacksonekin eta talde hauekin gauza bera gertatzen zaiola.
- d) Ezin direla Michael Jacksonekin konparatu.

5.- Tequila...

- a) bere aurreiritziak gainditu dituen talde bakarra da .
- b) Michael Jacksonekin batera burura datorkion talde bakarra.
- c) bere aurreiritziak gainditu ez dituen talde bakarra da.
- d) buruan duen talde bakarra da.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA
SARTZEKO PROBAK

2011ko EKAINA

EUSKARA ETA LITERATURA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JUNIO 2011

LENGUA VASCA Y LITERATURA

GAIA ETA IDEIA NAGUSIAK (2 puntu)

GAIA (Aukeratu egokiena)

- a) M. Jacksonen heriotzari buruzko aurreiritziak.
- b) Aurreiritzien eragina M.Jacksonen musikan.
- c) Aurreiritziek gustu musikalak moldatzen dituzte.
- d) Aurreiritziak gustu musikalen arabera doaz.

IDEIA NAGUSIAK

(Azaldu testuan agertzen diren ideia nagusiak eta bigarren mailakoak.)

A.2.- HIZKUNTZA ETA LITERATURAREN INGURUAN (1 puntu)

AURKITU TESTUAN DEFINIZIO HAUEI DAGOZKIEN HITZAK

- a) Gogoari atsegin zaiona.
- b) Norbaiti adiskidetasunez lotua dagoen pertsona.
- c) Mota bereko izaki bizidunen multzoa.
- d) Zerbaiti buruzko iritzi edo ustea, zerbait hori ezagutu edo aztertu aurretik sortua.

A.3.- IDAZLANA (gutxienez 200 hitz) (5 puntu)

ARTIKULUA

Michael Jacksonen jarraitzaile sutsua zara eta bere heriotzaren berri izan duzu. Idatzi ikastetxeko aldizkarian argitaratzeko omenezko artikulua, musika arloan izan duen garrantzia goraiatuz.



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA
SARTZEKO PROBAK

2011ko EKAINA

EUSKARA ETA LITERATURA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JUNIO 2011

LENGUA VASCA Y LITERATURA

B AUKERA

B.1.- IRAKURMENA

ULERMENA (2 puntu)

(Erantzun ondoko galdera hauei)

1. Zein iritzi dute irratietako tertulialariek Michael Jacksoni buruz?
2. Zergatik aipatzen ditu idazleak Patxi Huarte eta Koldo Aldabe?
3. Zergatik ez du idazleak Michael Jacksonen musikarekin gozatzen?
4. Nor da "Tequila"? Zergatik aipatzen du egileak?

GAIA ETA LABURPENA (2 puntu)

GAIA (Aukeratu egokiena)

- a) M. Jacksonen heriotzari buruzko aurreiritziak.
- b) Aurreiritzien eragina M.Jacksonen musikan.
- c) Aurreiritziek gustu musikalak moldatzen dituzte.
- d) Aurreiritziak gustu musikalen arabera doaz

LABURTU TESTUA (gehienez, 5-7 lerro)

B.2.- HIZKUNTZA ETA LITERATURAREN INGURUAN (1 puntu)

(Azaldu ondoko esaldi hauen esanahia)

- 1) "Michael Jackson nire aurreiritziekin borrokan"
- 2) "Artista handia "
- 3) "neureganatutako aurreiritziak "
- 4) "kulturalki oso gertukoak ditut biak"

B.3.- IDAZLANA (gutxienez 200 hitz) (5 puntu)

Gaia: *Lehenago eta oraingo musikariak*

Iritzi artikulua bat prestatu behar duzu egunkari baterako ondorengo gidoia garatuz:

- Lehenago musikariak orain ere modan.
- Lehenago "musikari zaharrak" berriekin lehian.
- "Musikari zaharrek" atea ixten diete berriei.